

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

312/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa. Hasierako onespena ematea Guardiako lurzoru urbanizaezinean Lezako ospitalearen instalazioen eremua handitzeko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari

Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuak lizentzia eskaera aurkeztu dio Guardiako Udalari, udalerriko lurzoru urbanizaezinean Lezako ospitalearen instalazioen eremua handitzeko.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Proiektatutako obren bidez, etxola bat egin nahi da ura hornitzeko 53 metro kuboko biltegi bat eta behar dituen instalazioak jartzeko. Ospitaleko instalazioen gaur egungo etxolaren alboan jarriko da, ospitalerako errepidearen azpian dagoen ezpondan. Proiektuan jaso da, halaber, 55 metro kuboko ur biltegi horizontal bat egitea suteen aurkako babes sarerako, ezponda horretan egingo den plataforma batean, zimendu lauza baten gainean.

Aurkeztutako proiektuan azaldutakoaren arabera, gaur egun Lezako ospitalean dagoen ur biltegiaren helburua da hornidura ziurtatzea udal sareak huts egingo balu ere. Hormigoï armatuz dago eginda eta eraikineko azken solairuaren gainean dago, eta aztertu eta konpontzeko premia dauka. Biltegi horren egituraren egoera eta kokapena direla eta, beste irtenbide bat bilatu behar da eta, hortaz, biltegi hori bertan behera uztea eta haren ordeztu berria egitea proposatzen da. Berria ospitalearen behealdean dagoen instalazioen eraikinaren alboan jarriko litzateke, bolumen baldintzak bete ditzan eta ponpaketa, klorazio, deskaltzifikazio eta bestelako ekipoa barnean har ditzan, sarea matxuraren bat egonez gero ur hornidura ziurtatuta izateko.

Era berean, suteetatik babesteko aplikatzekoa den araudia betetzeko, hots, suteen aurka ura hornitzeari buruzko 2012ko UNE 23500 araua eta suteetatik babesteko instalazioen arautegia onesten duen maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua, soilik horretarako erabiliko den biltegia behar da, suteetatik babesteko sistemek (ur harguneak, suteetako ur hargune hornituak, langargailuak) behar duten emaria gutxienez 60 minutuz ziurtatu ahal izateko. Ospitaleak baditu behar diren presio ekipoa eta, beraz, biltegia ponpetatik gertuko eremuan instalatzea aurreikusi da proiektuan.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotakoaren arabera, Lezako ospitalea Guardiako udalerriko 20 poligonoko 2 zenbakiko katastro lurzatian dago, eta egin nahi diren obrak 2-H azpilurzatian proiektatu dira, handitu nahi diren gaur egungo instalazioak dauden eraikinaren alboan. Lurzatiak kalifikazio hauek ditu: "Lehengoratu Beharreko Baso Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina" (zuhaitzak dituen ezponda), eta "Nekazaritza Intereseko Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina". Bat etorri udalerriko indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoarekin, lursail horretan baimenduta dago onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak eta instalazioak jartzea, baldin eta beharrezkoa eta ezinbestekoa bada toki horretan jartzea.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilerara batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiegunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea Guardiako lurzoru urbanizaezinean, 20 poligonoko 2-H azpilurzatian, Lezako ospitalearen instalazioen eremua handitzeko Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuak sustatutako proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeiegunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta haren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 9a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO